

Erosketa Publiko Iraunkorra

EPIren gidaren aurkezpena



Emausko Trapuketariak eta Barañain Auditorioa klima aldaketaren aurka

BAZENEKIEN ...

Kontratazio Publiko Iraunkorraren

"Kontratazio Publiko Iraunkorraren Gida. Gizarte irizpideak sartzea" delakoak adierazten du kontratazio publiko osoa BPGren %16 dela. Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroak, Nafarroako Gobernuaren Landa garapen eta Ingurumenaren Departamentuari lotutako fundazioak, gida aurkeztu zuen Civicanen, 2008ko irailaren 17an egindako ekitaldian. Agitalpen hau egitean, gainera, IDEAS erakundea (enpresetan zein administrazioetan irizpide etikoak eta bidezko merkataritzakoak sartzean espezializatua), Nafarroako Kontsumo Zerbitzua eta Ekonomia Alternatiboaren eta Elkartasunezkoaren Nafarroako Sarea (REAS Nafarroa) aritu dira lanean. Hauek guztiak proiektuaren bultzatzaileak izan dira, CRANA eta kontsumo arduratsuen foroarekin batera ■



Informazio gehiago: <http://economiasolidaria.org/node/1602>

Icaria Editorial-ek Elkartasunezko Ekonomiari buruzko liburuak argitaratzen segitzen du. Hausnarketa tresnak behar ditugu mundu konplexu honetan ekiteko. Nabarmendu nahi ditugu Icaria-Antraizit bildumaren hiru proposamen:

Parte hartzea! *Tresna kaxa bat elkartasunezko ekonomia-erendako. Illacrua aldiakaria.*

Gizartea aldatzeko, protestatzea ez da nahikoa; alternatibak ere proposatu behar dira eta bizimodu berriak praktikatuz, nahi dugun gizartearen zirriborroa izanen direnak.

Paradigma ekologikoa gizarte zientzietan. *E. Morin, G. Munda, M-Nardo, A. Puleo, V. Toledo, Á. Valencia egileen saiakerak. Zenbait koordinatzaile.* Gizarte edo Ingurumen eragina funtsezkoa da analisi mota bat ez betikotzeko; horretan soilik eragile sozio-politiko edo militar erraldoiek, eta aldagai makroekonomikoen marrazten dute errealtate guztia.

Bahitutako pentsamendua. *Susan George.* Ospe handiko



analista eta filosofoa, eta mugimendu altermundistaren figura nabarmena eta *El informe Lugano*-ren egilea. Bere liburu berrian azaltzen du nola neokon ideiak Estatu Batuetako nagusi bilakatu diren eta eragina duten ekonomia prozesu globaletan.

<http://www.economiasolidaria.org/bibliografia>

Hiru sektore sare eta Elkartasunezko Ekonomiaren entitate GEKren gaineko kontsulta prozesuan

REAS Nafarroa, Pobreziaren eta Gizarte bazterketaren aurkako Sarearekin, GGKEen Koordinakundearekin, "Enpresa eta Elkartasuna" eta "Gaztelan" Fundazioekin eta Setem GGKearekin elkarlanean, parte hartu du Nafarroako Gobernuak irekitako kon-

sulta prozesuan (2008ko uztailaren 15etik irailaren 19ra) honako hau garatzeko: "Gizarte Erantzukizun Korporatiboa Sustatzeko eta Bultzatzeko Programa Nagusia". Bertara Kontratazio Publiko Iraunkorrari lotutako ekarpenak eraman dituzte (kontratazioan

gizarte tea ingurumen irizpideak sartzea), gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonak laneratzea eta gizareratzea, elkartasunezko ekonomiaren zein banku etikoaren aldeko laguntza edo nekazaritza ekologikoaren sustapena, besteak beste.

Kontratazio Publiko Iraunkorra

Erosketa Publiko Iraunkorraren normalizazioa (EPI)

EPIren gida aurkeztu zen bereziki kontratazioa lantzen duten administrazioko, tokiko entitateetako, erakundeetako edo enpresetako teknikariei orientatutako jardunaldi batean.

Irekieran hauek hartu zuten parte: Anrés Carbonero, Nafarroako Gobernuaren Nazioarteko Lankidetzaren Zerbitzuaren burua eta Javier Asín, Ingurumen Baliabideen Zentroko zuzendari nagusia. Hizlariak hauek izan ziren: Santiago Lesmes, gidaren egilea, Laura Rodríguez, IDEASEko kidea. Jardunaldi berean entitate batzuek hartu zuten parte, besteak beste: REAS Nafarroa, Varazdin, (LZ), Tasubinsa (EZB), eta Setem (bidezko merkataritzako entitateak). Gidaren helburua da administrazio publikoei erraztea bere erosketetan eta kontratazio publikoetan ingurumen eta gizarte irizpideak sartzea.

Horretarako legezko aukera ezberdinak aztertzen dira, egin daitezkeen gizarte eta ingurumen gaiak planteatzen dira eta metodologia eta praktika onak proposatzen dira.



Elkarrizketa Santi Lesmes-i, EPIko gidaren erredaktoreari Zer da erosketa publiko iraunkorra?

Kontratazio publikoaren prozesu eta faseetan alderdi sozialak, etikoak eta ingurumenekoak integratzea da. Administrazio publikoak, bere departamentuek eta teknikoek ezagutza praktikoa izan behar dute, eta ekintza marko bat izan behar duten kontratazio klausulak eduki eta praktikoki aplikatzeko konpromisoak beren gain hartu.

Kontuan har dezagun espainiar estatuan BPGren %16 inbertitzen dela erosketa publikoan.

Arlo honetan, zer dugu jokoan Nafarroan?

Oso grafikoa da ospe handiko "Nafarroa 2012" planaren aurrekontua. Nafarroako administrazio publikoaren asmoa da 4.500 milioi euro baino gehiago inbertitzea. Hori da erosketa publikoa. Herritar guztion dirua. Zer irizpiderekin erosiko da? Asko mintzatzaren gara iraunkortasunaz, ingurumenaz, gizarte babesaz...

Zer egingen dugu benetako jarduketan? Udalez udal, departamentuz departamentu, proiektuz proiektu. Garrantzitsuena da irizpide hauek sendotzea eta praktika onak zehaztea, erosketa publikoari dagokionez.

Zein da Elkartasunezko Ekonomiaren papera honetan guztian?

Elkartasunezko Ekonomiaren erakunde antolatuek (REAS, kasu) berebiziko papera hartu behar dute heziketan eta sustapenean. REAS Nafarroak lagundu du Kontratazio Publiko Iraunkorraren Gidan eta gaur egun proiektu bat dauka aholkuak emateko administrazioetako teknikariei kontratazio publiko iraunkorrean, planifikaziotik hasita eta gauzatu arte. Elkartasun kartaren sei puntuek dituzte EPIren irizpideak ■

Erosketa etikoa

- Exijitza Europaz kanpoko operatzaileei berma ditzaten lan baldintza duinak betetzea eta haur esplotazioaren aurkako lana hornidura kate osoan.
- Bidezko merkataritzako ekimenei zein produktuei laguntza eskaini.



Erosketa berdea

Ingurumen betebeharrak hornidura, obra eta zerbitzu kontratuetan:

- Energia iraunkortasuna
- Produktuak berrerabiltzea
- Energia berriztagarriak erabiltzea
- Igortzeak gutxitzea
- Hondakinen kudeaketa egokia



Gizarte erosketa

Honako arlo hauek aztertzen dira:

- Kalitatea enpleguan
- Genero ikuspegia
- GZ edo EZBak kontratatzea
- Urritasuna duten pertsonak kontratatzea



Erosketa Publiko Iraunkorra

PARLAMENTUAREN AURREKO AGERTZEA

REAS, FES, Red Pobreza, eta GGKEK entitateek parlamentuko Gizarte Ongizatearen batzordean irailaren 10ean izan zuten agertzearen laburpena. Erosketa publikoaren inguruan aritu ziren: DEKLARAZIO PROPOSAMENA: Indarrean dagoen araudia kontuan hartuta, adosten da kontratu publikoak enkantean eskaintzeko prozeduran gizarte eta ingurumen irizpideak sartzea, esaterako: ingurumena, laneratzea, ahalmen urritasuna, generoaren ikuspegia, enpleguaren kalitatean, bidezko merkataritza, gizarte erantzukizuna edo elkartasunezko ekonomia. Nafarroako administrazio publikoei eskatzen zaie beren kontratu publikoetan gizarte eta ingurumen irizpideak sar ditzaten.

EKITE PROPOSAMENA: Proposatzen da batzorde batek (lege, ogasun, enplegu, gizarte ongizate eta ingurumen arloez osatutakoa) jartzea ingurumen eta gizarte irizpideak izanen dituen klausulak jartzea, kontratu publikoak esleipen prozeduraren fase ezberdinetarako. Aipatu batzordeak txostena emanen du epe jakin batean, aipatuz gauzatu ahal izateko behar diren neurri juridiko, tekniko eta finantzako guztiak.

REASen webgunea gora zerrendan eta bisitetan

'Google'-eko zerrendan, bilatutako hitzaren arabera:

1. **'economía solidaria'** bilatuta, 625.000 sarrereren artean
2. **'solidaria'** bilatuta, 6.440.000 sarrereren artean
3. **'red de redes'** bilatuta, 2.570.000 sarrereren artean
30. **'economía'** bilatuta, 151.000.000 sarrereren artean

2008ko bisiten estatistika:

Aldia	Banakako bisitaria	Guztira
URTARRILA	1.369	1.803
IRAILA	10.916	18.662
URT - IRA	65.797	154.450

DRUPAL Software Askeko eduki kudeatzaile berriak eta Mantentze lanetan emandako denborak bultzada ederra eman eta webgunea mundu mailako erreferentzia gisa sendotu dute.

REASen egun ludikoa

Urriaren 4an Txelu, Ascen, Mikel, Maite, Carlos, Hodei, Álvaro, Eliana, Eider, Andoni, Txus, Gustavo... eta honela REAS Nafarroako 50 lagun baino gehiago izan arte mukuru bete genuen Elkartasunezko Ekonomiaren bi proiektu ezagutzera eramán gintuen autobusa. Goizez Franco eta Marianaren HAZTEGI AGROEKOLOGIKORA joan ginén, Irurozkin. Transgenikorik gabeko eta landatze ekologikoz beteriko belardietan, eta zezen, behi eta behor zenbait lagun genituela hartu gintuzten lagun hauek, eta laster kutsatu ginén haiek zuten lur osasuntsu eta emankorrekiko maitasunaz. Gero, Irunberrin, paella goxoa jan genuen, produktu ekologikoz eta bidezko merkataritzako kafez lagunduta, JOSENEAko negutegi epeletan. Begoñak azaldu zigun proiektu hau Fiare Banku etikoak finantzaturako lehen proiektua dela Nafarroan eta bere jarduna dela usain-belar eta sendabelar ekologikoak ekoiztea eta euren aldeko sentiberatzea. Laneratze zentroa da. Etxera itzuli aurretik, baltsamo-belarraren eta argizari garbiaren usainak gozo bildu gintuen krema-tailerrean. Halako jardunaldietan elkar ezagutzeko eta gozatzeko aukera dugu. Taldea sendotzen dute eta animatzen gaituzte Elkartasunezko Ekonomiaren aldeko lanean segitzera. Alternatiba eraginkorra, etikoa, elkartasunezkoa eta iraunkorra iruditzen zaigu kontsumo gizartearen hondamendien aurrean. Krisialdiaren aurrean, Elkartasunezko Ekonomia gehiago eta hobea. Noizko beste egun ludiko bat? ■



Elkartasunezko Ekonomiaren hurrengo ekitaldiak

Data	Ekitaldia	Sustatzen du
URRIAK 13-19	Pobreziaren aurkako astea	Pobreza Cero
URRIAK 14, 21 ETA 28	Elkartasunezko Ekonomiari buruzko hitzaldi zikloa Berriozarren	REAS eta Berriozarko Udala
AZAROAK 10, 11 ETA 13	Elkartasunezko Ekonomiari buruzko ikastaroa Burlatan	REAS eta Burlatako Udala
AZAROAK 20	GGKEak eta enpresa: egoera eta elkarlanerako aukerak	Enpresa eta Elkartasuna
AZAROAK 28	Erosketarik gabeko eguna	REAS + zenbait erakunde
AZAROA	Auditoria sozialeko emaitzen aurkezpena	REAS
ABENDUAK 19	Fiare Nafarroako 3. urtemuga Bazkideen biltzarra (entitate zein pertsonak) – Kontzertua Barañain auditorioan	FIARE Nafarroa Elkarte

Pobreziarik ez: Mugitzaitez pobreziaren aurka

Pobreziaren aurkako astea, 2008ko Urriak 13-19

REAS Nafarroa Pobreziarik ez plataformaren baitan dago eta honetarako gonbidapena luzatzen du:

- Urriaren 17ko manifestazioan eta dauden Jardueretan parte hartzea.
- Informatzea entitate bakoitzean eta bertan dauden adierazpideak erabiliz.
- Webgunean informazio asko dago eta kanpaina laguntzeko modu anitz:

www.rebelatecontralapobreza.org

Malmö-n egindako Europako Gizarte Foroa bukatuta

EUROPEAN
SOCIAL FORUM
WWW.ESF2008.ORG MALMÖ, SWEDEN
17-21 SEPT. 2008



Gizarte mugimenduek egindako batzar batekin bukatu zuen Malmö-n, Suedia egindako Europako Gizarte Foroak. Han bost egunez, bertako eta Mundu osoko herrialdeetako gizarte ordezkariak bildu ziren, gizarte, ingurumen eta klima justiziaren alde euren banderak altxatu zituztenak.

Halaber, bakearen aldeko aldarrikapenak, hausnarketak eta jarduerak egon ziren, baita etorkinen eskubideen aldekoak, langileen aldekoak eta bidezko merkataritzaren aldekoak ere, besteak beste. 2009ko edizioa Istanbulen izanen da.

www.fse-esf.org

PRAKTIKA ONAK KLIMA ALDAKETAREN ALDE

Klima aldaketa, erregai fosilak agortzea, xahutzen dugun energia kopuru handia (asko nuklearretatik etorrira)... Hauek guztiek eragiten dute REASendako lehentasunezko kontua izatea energia kontsumo arduratsua. Energia eraginkortasuna presente dago auditoria sozialean eta kontuan hartzen da entitateei Kontsumo

Batzordetik aholkuak ematean. IMAGINA buletinetik Praktika Oneko esperientziak jorratzen ditugu azpiegitura garrantzitsuak dituzten entitateetan. Haietako lan taldeak konpromisoak hartzen ari dira eta euren hornitzaileekin zein bezeroekin batera partekatutako erantzukizuneko zubiak eraikitzen ari dira.

EMAUSKO TRAPUKETARIAK

Gipuzkoako errepidea 12. Km
Saratsako industrialdea. (31892) Saratsa, Nafarroa
www.emaus-navarra.com | 948 30 28 88



BARAÑAIN AUDITORIOA

Nafarroako Komunitatea k., 2. (31010) Barañain, Nafarroa
auditorio@auditoriobaranain.com
www.auditoriobaranain.com | 948 28 10 38



Zer konpromiso dute Trapuketariak energia eraginkortasunarekin eta nolako borroka klima aldaketaren aurka?


Gure eguneroko lanarekin eta esperientziekin mundu egokiago bat lagundu nahi dugu. Proposatzen dugun ingurumen politika gure barne kontsumoa murriztean datza, eta halaber, ahalik eta gehiena berrerabiltzean eta material gehienak birziklatzera eramatean.

Zein dituzte deklaraturako helburuak?

Nafarroako Emausko Trapuketariak Fundazioa, Ingurumen kargan duen inplikazioa jakinda, garatzen ari den politika da CO₂ igortzeak mantentzea eta/edo murriztea bilatzen duena da. Horretarako, gure lehen zeregina da gure kontsumoen datuak biltzea, ditugun instalazioen bilakaera urtero aztertu ahal izateko.

Hauek ditugu helburu nagusiak:

- Biltzen dugunari dagokionez, gero eta gehiago eta hobeki berreskuratu ahal izatea.
- Energia kontsumoak murriztea pertsonako edo lan egindako kg. bakoitzeko.
- Ingurumen irizpideak jartzea eraikin edo moldatze berrietan.
- Erosketa iraunkorretako politika.
- Barne kontzientzia.
- Beltzuntzeko komunitatea handitu da bioklima irizpideei jarraituta:
- Eguzki panelak jarri dira, euri-ura erabiltzen da komunetan, hegoalderako orientazioa eta banaketa...



Zer sare apustu egiten da honen guztiaren alde?

AERESS, Amantes de la Basura eta REAS Nafarroako Kontsumo Batzordearen zati gara.

2008an, zer konpromiso hartu dituzte?

1. Emausko Trapuketarien Praktika Oneko Gidaliburua, egindako eta egiteke dauden lan guztiekin.
2. Bertako hondakinak bereizteko ontziak lokal guztietan.
3. Erosketa irizpideak eratu dira ingurumen batzordean.
4. Bulego berriak egin eta daudenak moldatu dira isolamendu irizpideei jarraiki.
5. Komunitatearen eraikina bioeraikuntzako irizpideei jarraituz egin da:
 - Pintura, isolatzaile eta bestelako materialak ekologikoak.
 - 16 eguzki plaka ura berotzeko.
 - Euri-ura komunetako konketetarako erabiltzen da.
 - Filtro biologikoa hondakin urak tratatzeko.
6. Gidatze eraginkorreko ikastaroak gidariei.

Elkarrizketatutako pertsona: Andoni Romeo

REAS Nafarroaren zati bazara eta nahi baduzu IMAGINA buletinaren agertzea Praktika Oneko edo Elkartasunezko Ekonomiaren berriak agertzea, jarri gurekin harremanean.

Laburdurak ulertzeko:
GZ: Gizarteratze zentroa
EZB: Enplegu Zentro Berezia
EPI: Erosketa Publiko Iraunkorra

Zergatik sortzen da Biderartu / Transportarte kanpaina?

Barañain Auditorio Fundazioak, kulturaz gain, Gizarte gaien aldeko apustu sendoa egiten du. Gure entitatearen filosofiaren barnean dago ingurumen kudeaketa sistemak hartzea eta partekatutako erantzukizunaren printzipioa sendotzea. Horregatik sortu zen Biderartu, jendea hiri garraioan, oinez edo bizikletaz etortzera animatu nahi duen ekimena. Pizgarri gisa 'eurotransportarte' bat eskaintzen da, edozein ikuskizunerako sarreraren truke aldatzeko edo establezimenduko laguntzailearen batean erosketen truke. Beraz, berez berritzaile den proiektuari "ingurumen moneta" bat sortu izana erantsi behar zaio...

Biderartu, beraz, sentiberatzeko eta ekiteko tresna da?

Aldi batera bi gauzak lortzen ditu: batetik, garraio kolektiboa eta ez kutsakorra erabiltzea bultzatzen du jendea Barañain Auditorioko eta Iruñeko Planetarioko ekitaldietara joateko eta bestetik, entitate eta denda zenbaitekiko elkarlana bultzatzen du, 'eurotransportarte' diruaren erabilera zabaltzen dutenak eta horrela jokatuz parte hartzen dutenak. Guztion artean kultura kudeaketaren demokratizazioa lortzen dugu. Gainera, honelako ekimenez sustatzen dute hirugarrenek parte har dezaten edo beren inguruan antzeko zerbait egin dezaten.

Abian jarri zenetik 2.400 pertsona inguruk erabili dute Transportarte delakoa, bertaratutako %16. Gainera, 2007an, guztira izandako 85.000 ikusletarik, 9.350 iritsi ziren Transportarte proposatutako hiru bideetako batetik. Uste dugu 4.012,5 kg. CO₂ gutxiago igorri genuela honela.

Biderartuk aitorten ugari lortu ditu, zeintzuk?

Nabarmenezkoa da 2006an Nafarroako Gobernuak emandako Ingurumen Praktika Onei emandakoa, eta 2007an Huescako Antzerki eta Dantza Nazioarteko Ferian izandako izendatzea, Publiko Berriak Sortzeko Ekintza Eraginkorrenari emana. Eta, jakina, Biderartuk puntuak metatu zituen CRANAK 2005ean egin zuen aitorten publikorako, Energia Apustu Hoberenari emana.

Biderartu energiaren apustu plan global baten baitan dago?

Nafarroako Ingurumen baliabideen zentroak proposatutako "Energia apustuaren" zati da. Beste ekintza batzuk egin ditugu, esaterako, mugimendu sentsoreak dituzten argiak jarri ditugu sarbide, korridore eta gune komunetan. Praktika onetako gida egiten ari gara instalazioak behar bezala erabiltzeko eta hondakinak zuzen kudeatzeko eta laster banatuko dugu Auditorioko langileen artean. "Energia apustuaren" adierazpen formal bat dago, CRANAK koordinatutako ekintza planaren baitan. Honen bidez Barañain auditorioak konpromisoa hartu du Praktika Onak izateko honako arlo hauetan, besteak beste: eskuorriak, energia eraginkortasuneko neurriak, langileen eta bezeroen garraioa, eta abar...

Elkarrizketatutako pertsona: Bakarne Atxukarro